



Donostian egin zuen agerraldia sagardoaren sektoreak. Aurten pitxerretik eta botillatik edan beharko da.

Gorka RUBIO | FOKU

SAGARDO GARAIRAKO, PITXERRA BUELTAN

Joseba SALBADOR

Txotx denboraldia ohi baino beranduago zabalduko da, otsailaren 5ean, eta, sagardoa mahaian eserita dastatu beharko denez, pitxerra erabiliko da, garai batean bezala

Sagardotegiak dira pandemiak gogorren kolpatu duen sektoreetako bat. Iazko txotx denboraldia hasi berria zenean iritsi zen itxialdia, eta aurten, denboraldia hastear, Eguberri osteko kutsatze kasuen igoera iritsi da. Ez da erraza, baina sagardogileek txotx denboraldiaren erritua mantendu nahi izan dute, egoerara moldatuz. Atzo aurkeztu zituzten berrita-

sunok Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako ordezkariak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteetako lehendakariak: otsailaren 5ean zabalduko da denboraldia, sagardo dastaketa ezin izango da zuzenean upeletik egin eta bezeroek mahaian eserita egon beharko dute. Horrek ez du esan nahi upel ezberdinetako sagardo berria dastatzeko auke-

ra izango ez dutenik. Horretarako, sagardogile guztiek pitxerrak jarriko dituzte bezeroen eskura, mahai bakoitzetik pertsona batek, sagardogilearen laguntzaz, ontzia bete eta mahaira eraman dezan. Botilak ere banatuko dira, gardenak hauek ere, bezeroak sagardoaren kolorea ikus dezan eta argi eduki dastatuko duen hori sagardo berria dela.